

Ordizian, 2012ko maiatzaren 31an, Udaletxe honetako batzar aretoan bildu zen UDALEKO OSOKO BILKURA, OHIKO DEIALDIAN, honako hauek bertaratu zirelarik:

BERTARATUAK:

BATZORDEBURUA: Igor Eguren Izagirre jauna.

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Belén Maiza Urrestarazu andrea	BILDU taldea
Izaro Intsausti Zinkunegi andrea.	BILDU taldea
Juan Mari Gereñu Aldasoro jauna	BILDU taldea
Edurne Gutierrez Jauregi andrea	BILDU taldea
Imanol Iturrioz Lauzirika jauna	BILDU taldea
Iban Asenjo Garde jauna	BILDU taldea
Jose Miguel Santamaría Ezeiza jauna	PNV taldea
Judith Otegi Lopez de Murillas andrea	PNV taldea
Jose Ignacio Iturrioz Gotor jauna	PNV taldea
Arantzazu Garin Garmendia and.	PNV taldea
Bittor Bolinaga Alzelai jauna	PNV taldea
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	PSE/EE (PSOE) taldea

BERTARATU EZ ZIREN ZINEGOTZIAK :

IDAZKARIA:

Martin Iparragirre Mujika jauna

KONTUHARTZAILEA:

Jose Luis Aramburu Otegi jauna

ITZULTZAILEA:

Ez dago.

BERTARATUTAKO BESTE BATZUK

EGUNEKO GAIAK

EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:

- 1.- 2012ko apirilak 26an egindako Osoko Bilkurarako akta onartzea.
..... pág.4
- 2.- PSE-EE(PSOE) alderdiaren mozioa, homofobiaren eta transfobiaren aurkako nazioarteko egunari buruzkoa
..... pág.4
- 3.- AEK euskaltegiak egindako obrak interes berezia eta udal-erabilpena aitortzea.
..... pág.4
- 4.- Kreditu transferentzien onarpena.
..... pág.4
- 5.- Nafarroa Hiribidea 6 erkidegoko jabetza pribatuko lur-zerrendaren lagapena.
..... pág.4
- 6.- Udal zerbitzuak edo zergak ordaintzeko diru-laguntzak arautzen duen ordenantzaren aldaketa.
..... pág.4
- 7.- Garapenerako lankidetzaren programaren araudia aldatzea.
..... pág.4
- 8.- "San Juan" 22. Hirigintza Interbentziorako Eremuan, erabilera publikoko zortasun ezartzearen onarpena.
..... pág.4
- 9.- GOIEKI SArri dagokion 2011. ekitaldiko galera eta irabazien balantze eta memoria onartu
..... pág.4

PRESAZKO BIDETIK SARTUTAKO GAIAK:

- .- BILDU alderdiak aurkeztutako proposamena 1936ko altxamendu militarrean, gerra zibilean eta diktadura frankistan zehar ordiziarrek jasandako gertaeren oroimena berreskuratzeari buruzkoa.
..... pág.4
- .- Jentilbaratzaren izenean BILDU taldeak aurkeztutako proposamena 1512-2012 Nafarroaren konkista izenburua duena
..... pág.4

GORABEHERAK

GALDE-ESKEAK

ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 19,10ak.

AMAIERA ORDUA: 19,50ak.



Batzordeburuak hasiera eman dio bilkurari, gai-zerrendako lehen puntuaren berri emanaz.

1.- 2012ko apirilak 26an egindako Osoko Bilkurarako akta onartzea.

Proposamena

2012ko maiatzaren 31n apirilaren 28ko ohiko bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Santamaria jna.

Adierazi du akats hau dagoela euskerazko bertsioko 3.puntuan: 3 (EAJ/PNV 5) jartzen duen lekuan 5 (EAJ/PNV jarri behar du).

Alkate jn.

Honako akats hau aipatu du: 2. puntuan Alkate Asenjo jn. jartzen du eta Asenjo jna jarri beharko luke.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, EAJ/PNV 5,PSE-EE (PSOE)1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du, adierazitako zuzenketak egin ondoren.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako 2. puntuaren berri eman du:

2.- PSE-EE(PSOE) alderdiaren mozioa, homofobiaren eta transfobiaren aurkako nazioarteko egunari buruzkoa

Proposamena

Gaur, maiatzaren 17 honetan, nazioarteak homofobiaren eta transfobiaren aurkako nazioarteko eguna ospatzen du. Egunak 1990eko maiatzaren 17a dakarkigu gogora: Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) buruko gaixotasunen zerrendatik kanpo utzi zuen homosexualitatea. 1973an, Amerikar Psikologoien Elkarteak (APA) kendua zuen gaixotasun gisa bere diagnostikoen eskuliburutik, sektore kontserbadoreek eta erlijiosoek homofobia, transfobia eta bifobiaren aurkako egitateak justifikatzeko zerabilten oinarri sasizientifikoa erabat zokoratu.

Ziurtasun zientifikoan oinarritutako aurrerapen horiek ia mende oso batez lesbianen, gayen eta bisexualen aurka izandako aurreiritzi mediku eta diskriminazio sistematikoa behin betirako baztertzea zuten helburu. Egun horri aintzatespena eman zion Espainiako gobernu sozialistak 2009ko ekainaren 26ko Ministro Kontseiluak hartutako akordio bidez. Horrela, gure herrialdeak bat egin zuen Nazio Batuen Erakundeak maiatzaren 17an berdintasunaren aldeko borrokan sustatutako nazioarteko egun horretan gainerako Estatuekin. Akordioa onartzea benetako berdintasunaren aldeko beste aurrera pausu bat izan zen, azken 7 urteetan Gobernu sozialistak homofobia, transfobia eta bifobia, eta gure gizartean bizirik dirauen beste edozein diskriminazio-mota ezabatzea lortzeko egindako borrokan.

Gaur egun, Nazio Batuen Erakundeak egun hori ospatzen du urtero. Erakunde horrek Giza Eskubideetarako duen mandatarari Pillay Altaren hitzetan, "Homofobia eta transfobia ez dira sexismoarekiko, arrazakeriarekiko edo xenofobiarekiko desberdinak. Alabaina, aurreiritziaren azken aldaera horiek Gobernu guztiek errefusatzeko badituzte ere, homofobiari eta transfobiari ezikusia egiten zaie maizegi. Gu guztiok eskubide berdina ditugu, eta errespetu eta tratu etiko berbera merezi ditugu, gure sexu-joera eta genero-identitatea edozein dela ere.

Azken urteotan aurrera egitea lortu bada ere, gaur gaurkoz homofobia, transfobia eta bifobia dira gorroto gehien pizten dutenak, eta, halaber, sexu-joerak eta genero-identitateak lege-jazarpena pairatzen dute herrialde askotan. Halaxe jarri du agerian 'Informe del ILGA Homofobia de Estado' izeneko txostenak. Horren arabera, homosexualitateak jazarpen penala du 76 herrialdetan, eta heriotza-zigorra du Saudi Arabian, Iranen, Yemenen, Nigerian, Somalian, Mauritanean eta Sudanen. Afganistanen, berriz, sodomiak harrikatze bidezko heriotza-zigorra du. Horiez guztiez gain, makina bat herrialdetan epaiketez kanpoko erailteak eta gorrotoak eragindako hilketak gertatzen dira, pertsonen sexu-joera edo genero-identitatea aitzakia hartuta. Horiek guztiek egunero arriskuan jartzen dute mundu osoan giza eskubideen defentsan diharduten milaka ekintzaileraren bizia eta osotasun fisikoa.

Salatu nahi dugu aurten Txilen eta Mexikon Daniel Zamudio, gazte gaya, eta Agnes Torres, ekintzaile transexuala, hurrenez hurren, erail izana, baita Uruguain hiru emakume transexual erail izana ere. Hilketak horiez gain, salatu nahi dugu homosexualek eta transexualek Iraken eta Afrikako makina bat herrialdetan bizi duten egoera.

Gizarte-bazterkeria gehien pairatzen duen kolektiboa transexualena da. Halaxe adierazten dute Europako Batzordeak landutako txostenek. Bereziki pairatzen dute bazterkeria lan eta hezkuntza-arloetan. Gaur egun, oraindik ere, transexualitatea Osasunaren Munduko Erakundearen buruko gaixotasunen katalogoan sartuta dago. Horrek ekintzaile eta osasun-arloko profesionalen erantzun zabala eragin du, 2012rako aurreikusita dagoen DSM-V delakotik buruko patologia gisa kanpo uzteko eskatuz. Espainiako Gobernuak, Kongresuan dagoen talde sozialistaren ekimenaz eta 2010eko maiatzaren 14an ministroen kontseiluak hartutako erabakiz, eta Europar Batasunak OMERi eskatu diote ez dezatela sartu patologia gisa transexualitatea DMSren hurrengo eguneratzean.

HORREGATIK GUZTIARENGATIK

Eta ulertuta homofobiaren, transfobiaren eta bifobiaren aurka lan egiteak pertsonen berdintasunaren alde (sexu-joeran edo genero-identitatean oinarrituta) egiteko modu bat dela, Udal honen funtsezko konpromisoa hain zuzen ere, PSE-EE(PSOE) alderdiak honako proposamen hauek dakartza eztabaidara:

1.- Udal honek testu bat idatz dezala berdintasunaren arloan orain arte lortu ditugun aurrerapausoen defentsan gure jarrera irmoa azaltzeko, lortutako eskubide zibilak eta aitortutako gizarte-eskubideak deuseztatzeko edo mugatzeko edozein saiakera saihesteko gure konpromisoa adierazteko, eta gure herrialdean berdintasunezko ezkontzei buruzko legearen aurka PPK Auzitegi Konstituzionalean duen helegite lotsagarria atzera bota dezala exijitzeko.

2.- Udal honek dei egin diezaiela herritar guztiei lortutako eskubideak defenda ditzaten, azken urteotan erdietsi ditugun lorpenak murriztu nahi dituen eskuin gero eta muturrago horren aurrean, Udaleko Berdintasun Batzordeak sustatuko duen kanpainan parte hartuz (hemen jasotakoaren ildotik idatzitako idazkia sinatzea proposatzen dugu, gerora Estatuko Gobernuari helarazteko).

Egun honetan, PSE-EEK mundu osoan homofobiak eta transfobiak eragindako hildako guztiak ohoratu nahi ditu. Beste behin ere, lesbianen, gayen, transexualen eta bisexualen eskubide erreal eta eraginkorraren aldeko konpromisoa adierazi nahi dugu; horretarako, oraindik ere gure gizartean bizirik dauden diskriminazioei aurrea hartzen eta deuseztatzen lagunduko duten, eta diskriminazioaren biktimak babestuko eta lagunduko dituen berdintasunaren aldeko ekimenak aurkezten jarraituko du.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Dubreuil jn.

Mozioaren aurkezpena egin du, adieraziz 2012-05-17an izan zela homofobiaren eta transfobiaren aurkako nazioarteko eguna. Era honetan azpimarratu du mozioaren bitartez, azken bolada honetan gai honi buruz dauden portaerak salatu nahi direla, baita elizaren portaera gai honetan, baita berdintasunezko ezkontzei buruzko legearen aurka PPK Auzitegi Konstituzionalean duen helegitea atzera bota dezala exijitzea, eta horrekin batera Ordizian kanpaina egin dadila askatasuna eta berdintasunaren alde.

Alkate jn

Adierazi du bere taldea orokorrean ados dagoela proposamenarekin, batez ere mozioaren bi puntuekin, baina azalpen hauek egin nahi dituela.

- PSOE-PSE alderditik datorrenez, mozioaren lurraldetasuna Espainiara zabaltzen denean, bere taldea ez dagoela esparru horrekin ados.
- Mozioaren bigarren puntuan, "Udal honek egin diezaiela herritar guztiei lortutako eskubideak defenda ditzaten...Udaleko Berdintasun Batzordeak sustatuko duen kanpaina parte hartuz" jartzen badu ere, garbi dagoela Udaleko Berdintasun Batzordeak oraindik gai hau ikusi gabe daukala, horregatik inongo deia egin aurretik, mozioa Berdintasunaren Batzordera bidaliko da, kanpaina hau nola egiten den baloratu dezan.

Azalpen hauek eginda, bozketa egin da.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, PSE-EE (PSOE)1, EAJ/PNV 5)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako 3. puntuaren berri eman du:

3.- AEK euskaltegiak egindako obrak interes berezia eta udal-erabilpena aitortzea.

Proposamena

Eraikin, Obra eta Instalazioen Zerga Arautzen duen Ordenantzaren berri eman da. Horrek aurreikusten du interes berezikoak diren edo udal erabilerarako interesgarritzat jotzen diren eraikin, instalazio eta obrei zergaren kuotan % 95eko hobaria ematea, beti ere izendapen hori arrazoitzeko behar adina ezaugarri sozial, kultural, historiko-artistiko eta enplegu-sustapenekoak baleude.

Era berean, Ordiziako Goiztiri AEKren aipaturako zergaren hobari eskariaren berri ematen da, euskaltegiarentzat Zuberoa kaleko egokitzapen lanetarako.

Eraikuntza, Instalazio eta Obren Zergaren uztailaren 5eko 15/1989 Foru Arauaren 5.1.a) artikulua arabera, Tokiko Zerga Sistema berritzeko martxoaren 19ko 4/2003 Foru Arauak aldatuta, Osoko Bilkurari dagokio hobaria aplikatzeko obren interes edo erabilera publikoa izendatzea.

2012ko maiatzaren 16ko data daraman Osoko Bilkurarako Gaien Batzordeak, eskatutako hobariaren aldeko irizpena eman du, udalean dagoen euskaltegi bakarra dela eta hezkuntzarekin lotutako zentroa dela kontuan izanik, eta % 95eko hobaria proposatu du.

AKORDIO PROIEKTUA

Egingo diren obren interes berezia eta udal-erabilpena aitortzea eta, ondorioz, aipatu obrei Eraikin, Obra eta Instalazioen gaineko Zergaren %95eko hobaria egin dakien onartzea.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: ez dira izan.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, PSE-EE (PSOE) 1, EAJ/PNV 5)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa:

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako 4. puntuaren berri eman du:

4.- Kreditu transferentzien onarpena.

Proposamena

Aurrekontu egiterakoan jakin izan genuen autoen aseguruaren kopurua esleipenean zenbatekoa izan zen. Kopuru oso horregatik 224.111.00.02 partida sortu zen 5.800 eurokin.

Orain, erreziboak bakarka iritsi dira eta kontabilizatu dira tokatzen zaien atalean.

Aurrekontua exekutatzeko 3. oinarriak dio, atal desberdinetako transferentziak egiteko Udaltzaren akordioa beharko dela.

Hau horrela, ondoko proposamena aurkezten da:

KREDITU IGOERAK

<u>PARTIDA</u>	<u>IZENA</u>	<u>KOPURUA</u>
224.433.00.02	Autoen aseguru. Argindarra.	640,00
224.434.11.02	Autoen aseguru. Lorategiak	550,00
224.442.20.02	Autoen aseguru. Kale garbiketa	685,00
224.622.30.02	Autoen aseguru. Peria	760,00
	GUZTIRA	2.635,00

KREDITU MURRIZKETAK

<u>PARTIDA</u>	<u>IZENA</u>	<u>KOPURUA</u>
224.622.30.02	Autoen aseguru. Gobernu Organoak	2.635,00
	GUZTIRA	2.635,00

Kontuhartzailea

Zuzenketa batzuk egin dizkio aurkeztutako proposamenari, honela geratzen delarik:

Proposamena

Aurrekontu egiterakoan jakin izan genuen autoen aseguruaren kopurua esleipenean zenbatekoa zen.

Kopuru oso horregatik 224.111.00.02 partida sortu zen 6.020.- eurokin.

Orain, auto bakoitzaren erreziboak iritsi dira eta kontabilizatu dira tokatzen zaien atalean.

Aurrekontua exekutatzeko 3. oinarriak dio, atal desberdinetako transferentziak egiteko Udaltzaren akordioa beharko dela.

Hau horrela, ondoko proposamena aurkezten da:

KREDITU IGOERAK		
<u>PARTIDA</u>	<u>IZENA</u>	<u>KOPURUA</u>
224.433.00.02	Autoen aseguru. Argindarra.	640,00
224.434.11.02	Autoen aseguru. Lorategiak	550,00
224.442.20.02	Autoen aseguru. Kale garbiketa	685,00
224.622.30.02	Autoen aseguru. Peria	760,00
	GUZTIRA	2.635,00

KREDITU MURRIZKETAK		
<u>PARTIDA</u>	<u>IZENA</u>	<u>KOPURUA</u>
224.111.00.02	Autoen aseguru. Gobernu Organoak	2.635,00
	GUZTIRA	2.635,00

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkatea

Eskatu dio Kontuhartzaileari transferentziaren zergatia azaltzeko.

Kontuhartzailea

Azalpenak eman ditu.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 8 (BILDU 7,PSE-EE (PSOE) 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 5 (EAJ/PNV 5)

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

5.- Nafarroa etorbidea 6 erkidegoko jabetza pribatuko lur-zerrendaren lagapena.

Proposamena

2012ko martxoaren 9an, Nafarroa etorbidea, 6ko Erkidegoan ospatutako Ezohiko Batzordearen berri ematen da. Batzorde horretan eta Erkidegoko lehendakariak 2012ko maiatzaren 16ko sarrerarekin Udalean aurkeztutako idatziaren bitartez eta kuoten % 100 eta bizilagun guztiak bertan izanik, aho batez onartu zen Ordiziako Udalak ibaiaren paralelo eta Erkidegoarentzat pribatua izango zen lur-zerrenda doan lagatzea, 191,28 m²-ko azalerakoa, atxikitzen den Planoarekin bat etorritz, bertan bidegorria eraikitzeko.

2012ko maiatzak 24 ko Osoko Bilerako Gaiaren Batzordearen aldeko irizpenarekin, honako hau proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

- 1.- Nafarroa etorbidea 6 erkidegoko jabetza pribatuko lur-zerrenda, 191,28 m²-koa doan laga dadin onartzea, Oria ibaiaren paralelo, bertan bidegorri bat eraikitzeko.
- 2.- Eskritura publikoak formalizatzeko prozedura eta Erregistroko gastuak, edo lagapenak lekarkeen beste edozein gastu Ordiziako Udalak ordainduko ditu.
- 3.- Alkateari ahalmena eman behar diren agiri guztiak sinatzeko.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Asenjo jn.

Gai honi buruz emandako pausoen berri eman du. Gogorarazi du aurreko agintaldian Nafarroa etorbideko Oria ibai ertzeko pasalekuan bidegorria egiteko saiakerak hasi zirela, baina jabetza pribatua denez, ez zela proiektua gauzaterik lortu. Azpimarratu du elkarrizketak jarraitu dutela eta dagoeneko Intsausti plaza 4 eta 5 zenbakiko lagapena egina dagoela, eta Nafarroa etorbidea 6 jabeekin adostasuna lortu eta Udal Osoko Bilkura honetan lagapena onartu behar dela; bukatu du esanez gainerako 5 portaleko jabeekin elkarrizketak jarraitzen dutela, eta ematen diren pausoen berri ematen joango dela.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, PSE-EE (PSOE)1, EAJ/PNV 5)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

6.- Udal zerbitzuak edo zergak ordaintzeko diru-laguntzak arautzen duen ordenantzaren aldatzea.

Proposamena

2010eko maiatzaren 28an onartu zen zergak edo udal zerbitzuak ordaintzeko laguntza ekonomikoen programa arautzen duen ordenantza aldatzea.

Administrazio Publikoek ematen dituzten diru-laguntzen araubide juridikoa azaroaren 17ko Diru Laguntza Orokorren 38/2003 legeak araututa dator.

Lege horren 17.2 artikulua ezartzen du tokiko tokiko erakundeek emandako diru-laguntzen oinarriak ordenantza bidez onartu beharko direla.

Gizarte Ongizate Saitetik Ordenantza berriz aldatzea proposatu da.

Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 artikulua dioenari jarraiki, Tokiko Erregimenaren Oinarriak erregulatu dituen, Osoko Bilkurari dagokio Araudiak eta Ordenantzak onartzea.

Tokiko Araudiari buruz indarrean dauden xedapenen Testu Bategineko 56. artikulua dio Ordenantzak aldatzeko egin beharreko tramiteak, horiek onartzeko egin behar diren berberak direla.

Ondorioz, jarraitu beharreko prozedura ondorengoa da:

- Osoko Bilkurak hasieran aldatzea onartu.
- Jendaurrera zabaldu eta interesatuentzako entzunaldia hogeita hamar eguneko gutxieneko epean, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko onartutako aldatetari.
- Epe barruan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizun guztien ebazpena egin, eta ondoren osoko bilkurak behin betiko onartu.

Horiek horrela eta Gizarte Ongizateko Delegazioaren 2012ko maiatzaren 2ko aldeko irizpenarekin, 2012ko maiatzaren 23ko Osoko Bilkurarako Gaien Batzordeak honako hau proposatzen du:

AKORDIO PROIEKTUA

- 1.- Zergak edo udal zerbitzuak ordaintzeko laguntza ekonomikoen programa arautzen duen ordenantza alda dadin onartu hasieran.
- 2.- Arautegi hori jendaurrean jarri 30 egunez, Udaletxeko iragarki-taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eta interesdunek aurkeztutako erreklamazioei eta iradokizunei tarte eman, horiek guztiak Korporazioak ebatziko dituelarik.
- 3.- Erreklamaziorik edo iradokizunik ez balego, Araudia behin betiko onartutzat emango da, akordio berririk egiteko beharrik gabe.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Maiza and.

Azaldu du gaia, eta gogararazi du gai hau Gizarte Ongizate Batzordean eta baita Gai Arrunten Batzordean aztertu zela.

Indarrean dagoen ordenantza oinarritzat hartuta, planteatzen den aldaketarekin aspektu batzuk osatu eta beste batzuk berriak sartzen dira, eta hauetako adierazgarrienak aipatu ditu.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, PSE-EE (PSOE)1, EAJ/PNV 5)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

7.- Garapenerako lankidetza programaren araudia aldatzea.

Proposamena

2008ko urriaren 16an, Garapenerako Lankidetza Programaren Araudia onartzen zuen udalbatzaren akordioa onartu zen.

Administrazio Publikoek ematen dituzten diru-laguntzen araubide juridikoa azaroaren 17ko Diru Laguntza Orokorren 38/2003 legeak araututa dator.

Lege horren 17.2 artikulua ezartzen du tokiko tokiko erakundeek emandako diru-laguntzen oinarriak ordenantza bidez onartu beharko direla.

Gizarte Ongizate Sailetik Ordenantza aldatzea proposatu da.

Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 artikulua dioenari jarraiki, Tokiko Erregimenaren Oinarriak erregulatzen dituena, Osoko Bilkurari dagokio Araudiak eta Ordenantzak onartzea.

Tokiko Araudian indarrean dauden xedapenen Testu Bategineko 56. artikulua dio Ordenantzen aldaketak onartzeko egin behar diren tramite berberak egin behar direla.

Ondorioz, jarraitu beharreko prozedura ondorengoa da:

- Osoko Bilkurak hasieran aldaketa onartu.
- Jendaurrera zabaldu eta interesatuentzako entzunaldia hogeita hamar eguneko gutxieneko epean, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko onartutako aldaketari.
- Epe barruan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizun guztien ebazpena egin, eta ondoren osoko bilkurak behin betiko onartu.

Horiek horrela eta Gizarte Ongizateko Delegazioaren 2012ko maiatzaren 2ko aldeko irizpenarekin Osoko Bilkurarako Gaiak Batzordeak honako hau onartzea proposatzen du:

AKORDIO PROIEKTUA

1.- Garapenerako Lankidetza Programaren Araudi aldaketa onartzea hasieran, atxikitzen den dokumentuan proposatutako aldaketekin bat etorritz.

2.- Arautegi hori jendaurrean jartzea 30 egunez, Udaletxeko iragarki-taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eta interesdunek aurkeztutako erreklamazioei eta iradokizunei tartea ematea, horiek guztiak Korporazioak ebatziko dituelarik.

3.- Erreklamaziorik edo iradokizunik ez balego, Araudia behin betiko onartutzat emango da, akordio berririk egiteko beharrik gabe.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Maiza and.

Adierazi du indarrean dagoen ordenantza oinarritzat hartuta, ordenantzan jaso gabe bazeuden ere praktikan aplikatu diren 4 edo 5 puntu berriro jaso edo osatu direla, eta hauetatik garrantzitsuenak azpimarratu ditu: kooperazioa egiteko adina zabaldu da 18-35 urte bitartera, eskaerak egiteko epea finkatu da, e.a.

Bestalde adierazi du falta zen puntu bat ere jaso dela (haurrak kanpotik ekartzeko programa dela eta elkarteei dirulaguntza).

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, PSE-EE (PSOE)1, EAJ/PNV 5)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

Alkate jn.

Adierazi du hemendik aurrera eta etxebizitzak eraikitzen doazen heinean "San Juan" 22 Hirigintza Interbentziorako Eremuan antzeko erabaki gehiago hartu beharra izango direla, eta ondoren irakurri du akordio proposamena.

8.- "San Juan" 22. Hirigintza Interbentziorako Eremuan, erabilera publikoko zortasun ezartzearen onarpena.

Proposamena

2012ko maiatzaren 24ko Osoko Bilkurako Gaien Batzordeak premiazko bidez artatu zen gaiaren berri ematen da, "San Juan"22. Hirigintza Interbentziorako Eremuan, erabilera publikoko zortasun ezartzearen onarpena.

Osoko Bilkurako Gaien Batzordearen aldeko irizpenarekin, segidako erabakia onartzeko proposatzen du:

AKORDIO PROEKTUA:

Lehena.- Ordiziako Udalaren aldeko erabilera publikoko zortasunaren ezarpena onartzea, behe oinean eraiki gabeko gunean, hau da, hirurehun eta berrogeita hamabi metro kuadro eta berrogeita hamabi dezimetro kuadro (352,52 m²)ko gainazalean; gune honen mugak direlarik Iparratik Ipar Blokea edota Filipinak kalea berrogeita bi zenbakia; Hegoa, Hego blokea edota Filipinak kalea berrogei zenbakia; Ekialdea, Karril-azpi kalea, eta Mendebaldea, Filipinak kalea.

Bigarren.- Alkateari ahalmena ematea behar diren agiri guztiak sinatzeko.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: ez dira izan.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, PSE-EE (PSOE)1, EAJ/PNV 5)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

9.-GOIEKI SARI dagokion 2011. ekitaldiko galera eta irabazien balantze eta memoria onartu

Proposamena

GOIEKI SAK aurkeztutako kontu-ikuskaritzako txostenanren berri eman da, 2011ari dagokiona, 2012ko ekainaren 26an egingo den Batzorde Orokorrean aztertu eta onartzeko.

Osoko Bilkurarako Gaien Batzordearen aldeko erabakiarekin, honakoa proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

GOIEKI SArI dagokion 2011. ekitaldiko galera eta irabazien balantze eta memoria onartu

Alkate-Batzordeburuari Udal honen ordezkartzan aldeko botoa emateko ahalmena eman.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jn

Adierazi du urtero Udal Osoko Bilkuran sartzen den puntua dela eta memoriaren datu garrantzitsuenak aipatu ditu.

Santamaría jn

Bere aldetik esan du bere alderdia administrazioa kontseilutik kanpo egonda ez zaiola zilegia iruditzen memoria onartzea, eta horregatik bere taldeak aurka bozkatuko duela.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 8 (BILDU 7, PSE-EE (PSOE)1)

Kontrako botoak: 5 (EAJ/PNV 5)

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak hurrengo puntuaren berri eman du presazko eraz aurkeztuz:

Alkate jn

Gai honi dagokionez, esan du nahiz eta BILDU TALDEAK aurkeztu plenoari mozioa hau, herrian lan talde bat dabilela proiektua garatzeko asmotan eta atzo Foru Aldundian dirulaguntza eskaera aurkeztu zela. Dirulaguntza bideratzeko Udal Osoko Bilkuraren oniritzia beharrezkoa da.

10.- 1936ko altxamendu militarrean, gerra zibilean eta diktadura frankistan zehar ordiziarek jasandako gertaeren oroimena berreskuratu, egia ezagutu eta aitortzea helburu duen proiektua.

EGITASMOAREN JUSTIFIKAZIOA

Euskal Herriko beste hainbat herrik bezalaxe, Ordiziak modu berezian sufritu zuen frankisten altxamenduaren eta frankismo garaiko erregimen politikoaren ondorioak. Gure herriaren kasuan, jakin badakigu, esaterako, 18 izan zirela erregimenak fusilatu zituztenak, eta horien izenak ezagutzen baditugu ere, hortik aurrea ezer gutxi. Izan ere, ezin dugu ahaztu horiekin batera badirela errepresioa beste hainbat modutara sufritu zutenak ere, esaterako, kartzelaratuak eta gerra kontseiluak jasan zituztenak, erbesteratuak eta "gerrako umeak" izenez ezagutzen direnak, batailoietan borrokatu zuten abertzaleak eta errepublikaren defendatzaileak, konfiskazioa...

Horien guztien inguruko azterketa lokalik ez da sekula egin. Ez da garai hartako gertaera lazgarrien inguruko ikerketarik egin egia ezagutu ahal izateko. Ez da bidegabekeria haiek sufritu zituztenen, abertzaleen eta sistema politiko legitimoa defendatu zutenen aldeko inolako errekonozimendu edo erreparazio ekintzarik burutu. Eta, jakina, ez da justiziarik egin.

Azken helburua, justizia egitearena, gure eskutatik kanpo geratzen bada ere, uste dugu gure ahalmen eta baliabide mugatuekin, baina borondate on eta saiakerarekin, hainbat urrats eman ditzakegula aurrera Ordizian bertan.

AURREKARIAK.

Ordizian burutu izan dira hainbat ikerketa historiko eta lan pedagogiko. Horien artean azpimarra daitezke:

- Herriaren sorrera eta historiari buruzko unitate didaktikoa.
- Andres Urdanetari buruzko ikerketa eta lanak.
- Ordiziako Azokaren inguruko lan etnografikoa.
- Udalaren urtekarian argitaratutako hainbat ikerketa labur.
- Victor Mendizabal mezenasa zenaren ikerketa beka.
- Nikolas Lekuonaren obra aztertu eta ezagutarazteko lanak (publikazio eta webgunea).
- Ordiziako euskararen azterketa eta Ahotsak egitasmoaren baitan egindako grabazioak.
- Herriko toponimiaren azterketa.
- Enirio-Aralar Mankomunitatearen VI. Mendeurrena dela eta egindako ikerketa.

Horrekin batera, azpimarratzekoa da Ordizia 2008tik Hiri Hezitzailea delako egitasmoaren baitan burutzen ari den lana.

Baina orain artean ez da inolako lanik edo saiakerarik egin 1936-1945 urte bitarteko gertakariak aztertzeke eta ezagutarazteke. Horregatik, jada aurreko agintaldian Udalak interesa agertu zuen

frankismoaren garaiko biktimei nolabaiteko errekonozimendua egiteko, eta 2011ko maiatzaren 16ko Osoko Bilkuran Udalak aho batez erabaki zuen (EAJ/PNV, EA, PSE-EE, EB-Aralar eta PPren aldeko botoekin) 36ko altxamenduak bere kargutik kendutako zinegotzien legitimitatea aitortzeko ekitaldi bat antolatzea eta Udaletxeko fatxadan plaka bat jartzea. Baina orain artean ez da horrelako inolako ekimenik burutu.

Era berean, 2012ko aurrekontuetarako 6.000 euroko diru partida onartu du nolabaiteko errekonozimendu publiko eta instituzionala egiteko.

PROIEKTUAREN HELBURUAK.

Gure egitasmoaren helburua ez da altxamenduaren edota Ordiziaren okupazioaren kronika egitea, edota ikerketa historiko objektiboa egitea. Nolabait esateko, gure lanarekin ordiziarren bizipenei hitza eman nahi diegu. Hurbilketa historiko eta politikoa albo batera uztea ezinezkoa da halako gai baten inguruan, baina guk batez ere hurbilketa humanoa egin nahi dugu. Izen deiturak eta aurpegiak jarri nahi dizkiegu biktimei. Ahal den neurrian hitza eman nahi diegu. Egin zutena eta egin zietena errekonozitu nahi diegu. Eta hori guztia publikoki ezagutarazi erreparazioan urratsak emateko.

Gure lanaren helburu nagusienak edota lerroak hiru izango dira. Batetik, egiaren ezagutza, egia ezagutu ahal izateko dokumentazioa eta informazioa jasotzea. Bestetik, informazio eta egi hori zabaltzea eta herritarrak giza eskubideen inguruan sentsibilizatzea. Eta azkenik, ahal dugun neurrian biktimen errekonozimendu eta erreparazioa.

PROGRAMATUTAKO EGITEKOAK ETA FASEAK.

Aipatutako helburu orokorrak betetzeko, gure egitekoak hainbat fasetan banatzea aurre ikusten dugu (kronologikoki ere sekuentzia logiko hauxe jarraituko dutenak):

- 1.- Testigantzen grabaketa. Gaur egun oraindik baditugu Ordizian garai horiek zuzenean bizi izandako herritarrak, eta ezinbestekoa eta lehen bai-lehen egitekoa jotzen dugu horien testigantza zuzenak jasotzea. Testigantza horiek bidez grabatu eta editatuko ditugu.
- 2.- Artxiboen azterketa eta informazioaren bilketa. Horretarako ahalik eta gehien baliatu beharko dugu beste hainbat erakundek egindako lanaz (Aranzadi, Memoria Historikoa...).
- 3.- Materialaren bilketa: argazkiak, agiriak, eskutitzak, dominak, kartilak... Beste hainbat herritan halako lana egin bada ere, gurean ez da saiakerarik egin material horiek biltzeko.
- 4.- Biktimen errekonozimendu eta erreparazioari begirako ekitaldi instituzionala eta oroimena espazio publikora eramatea.

5.- Argitalpen xumea, dela paperean nahiz formatu digitalean. Gure asmoa ez da tesi sakon bat egitea, baizik eta errekonozimendua publikoa egiteko argitalpen bat egitea, eta material pedagogikoren bat argitaratzea.

Une honetan ez gara gauza zehazteko fase horiek denboran nola gauzatuko diren, baina printzipioz bi urtetako lana planteatzen dugu. Gure buruari jartzen diogun helburuetako bat da 2013ko amaierarako errekonozimendu publikoa eta publikazio xume bat egitea.

Lanaren plangintza:

	Irai	Urri	Aza	Abe	Urta	Ots	Mar	Api	Mai	Eka	Uzt
Dokumentazio lana: Udal Artxiboak, Aranzadi...	X	X	X	X	X	X					
Ahozko testigantzak jaso eta elkarrizketak burutu			X	X	X	X					
Materialen bilaketa: Argazki zaharrak, eskutitzak...			X	X	X	X					
Ikerketa lanaren osaketa							X	X	X		
Edizio eta maketazio lanak										X	
Sentsibilizazio kanpaina										X	
Erreparazio ekitaldiak											X

METODOLOGIA ETA HERRITARREN PARTE HARTZEA.

Halako ikerketa eta errekonozimendu lana egiteko ezinbestekoa da herritarren parte hartzea. Bi arrazoi nagusirengatik. Batetik, ezinbestekoa delako errepresioa jasan zutenen testigantza jasotzea (eta horrekin batera, ahalik eta material gehien). Eta bestetik, helburuen artean gure gertuko historia ezagutzea, herritarrak giza eskubideen inguruan sentsibilizatzea eta erreparazio publikoa dugulako.

Horregatik, nahiz eta Udalarekin elkarlanean jardungo duen talde eragile bat osatuta dagoen, gure asmoen artean dugu lan batzorde ireki bat osatzea, herrian deialdi zabalak egitea, harremanetarako (bai informazioa jasotzeko, zein herritarrek beren eskaerak egin ditzaten) bulego ordu batzuk finkatzea eta web orria irekitzea.

Ziurtatuta dugu talde eragilean gutxienez parte hartuko dutela historialari batek, bi antropologok, kazetari batek, irakasle batek eta ikus-entzunezkoetan aditu batek.

Era berean, guretzat ezinbestekoa da herriko alderdi politiko guztien babes eta parte hartzea ez ezik, Udaleko hainbat sailen (Kultura, Berdintasuna eta Euskara) eta herriko hainbat eragileren (ikastetxeak, jubilatuen elkarteak...) parte hartzea bermatzea egitasmoaren fase ezberdinetan.

Gure ustez, garrantzitsua da azpimarratzea egitasmoak jada Ordizian ordezkariak duten alderdi guztien babes duela (BILDUrena, EAJ/PNVrena eta PSE-EErena), izan ere, gure asmoa erabat inklusiboa baita.

Azkenik, aipatu nahiko genuke ahalegin berezia egin nahi dugula testigantza zuzenak jasotzeko eta errepresioa zuzenean jasan zutenengana hurbiltzeko. Izan ere, gure ustez hori da bide egokiena bai haiei aitortza egiteko, eta baita gaur egun eta etorkizunari begira irakaspenak atertzeko.

GENERO IKUSPEGIA.

Askotan emakumeak biktima "ikus ezinak" izan direlako, gizartearen egunerokotasuneko testigu zorrotz izan ditugulako eta behar bezalako errekonozimendua izan ez duten agente sozial izan direlako, saiatuko gara gure ikerketan toki berezia izan dezaten.

HIZKUNTZA.

Aztertze gaien artean euskarak eta euskal hiztunek jasandako jazarpena eta errepresioa lehenetsizkoak izango dira. Lana euskaraz burutuko da, baina argitalpenak eta ekitaldi publikoak ele bietan egingo dira.

AURREKONTUA.

Gastuak hainbat atal nagusitan aurreikusten ditugu, eta segidan agertzen diren kopuruak dira gure aurrekontuan finkatuta ditugunak.

1.- Kanpo aholkularitza eta kontratazioa.

Ezinbestekoa jotzen dugu herriko lan taldea dinamizatu eta koordinatuko duen aholkularia edo izatea. Aranzadirekin hitzarmena buruko dugu aholkularitza hori bermatzeko eta behar bezalako ezagutza izango duen pertsonaren laguntza izateko.

Aurre ikusten dugun kopurua. 9.000 euro.

2.- Grabaketak egiteko materiala:

Bideo kamerarentzako tripodea, kanpo disko gogorra, mikrofonoa, grabagailua...

Aurre ikusten dugun kopurua: 2.000

3.- Bidai eta egonaldietako dietak.

Une honetan ez dakigu ziurtasunez jada aurretik hainbat artxibo arakatzen aritu direnek duten informazioarekin (Aranzadi, Memoria Historikoa...) eta korreo bidezko harremanekin nahikoa izango ote dugun, edota Euskal Herriko zein estatuko hainbat artxibo bisitatu beharko ditugun. Beraz, zaila zaigu kopuru zehatza aurre ikustea.

Aurre ikusitako kopurua: 2.000 euro.

4.- Bibliografia eta bulego gastuak.

Aurre ikusten den kopurua: 500 euro.

5.- Materialaren zabalkunderako maketazio, inprenta eta edizio gastuak.

Egitasmoa martxan jartzean asmoaren, harremanetarako telefonoaren, bulegoaren... berri ematen duen folleto txikia: 1.000 euro.

Amaierako ikerketa lanaren argitalpena: 4.000

Testigantzak jasotzen dituen DVDaren muntaia eta edizioa: 1.500

6.- Sentsibilizazio eta zabalkunderako ekintzak eta errekonozimendurako ekitaldiak.

Egindako lanaren zabaldunderako, sentsibilizatorako eta biktimen errekonozimendu eta erreparaziorako, hainbat ekintza aurre ikusten ditugu:

Sentsibilizazio astea, hainbat emanaldi, erakusketa eta hitzaldi: 1.000 euro.

Espazio publikoan jartzeko plaka eta oroigarria: 2.000 euro.

Errekonozimendu ekitaldia: 1.000 euro.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Gaia aztertu aurretik, mozioaren presazko izaeraren bozketa jarri da.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Erabatekoa.

Presazko izaeraren Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, PSE-EE (PSOE)1, EAJ/PNV 5)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamenaren presazko izaera onartutzat eman du.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate in

Adierazi du horrelako programak gauzatu ahal izateko Gipuzkoako Foru Aldundian dirulaguntza eskaera aurkezteko epea atzo bukatu zela, eta besteak beste dokumentazioa osatzeko, Udal Osoko Bilkuraren oniritzia eskatzen dela.

Azpmarratu du dirulaguntza kostuaren %80^a arte finantziatu daitekeela, beti ere 18.000,00.-€ tope bezala, eta gai horren inguruan lan talde bat dabilela proiektua gauzatzeko ahaleginetan.

Hori dena kontuan izanda dirulaguntza eskaera atzo aurkeztu zen, eta eskatzen den dokumentazioa osatzeko Udal Osoko Bilkuraren oniritzia behar da. Esan du, bere taldea horrelako proiektuak bultzatze alde dagoela, eta gogoratu du orain denbora gutxi antzeko gai bati buruz Ordiziako Udalak aho batez adostutako erabaki bat dagoela, eta oso interesgarria izango litzatekeela ahalik eta babes gehien izatea.

Azkenik adierazi du nahiz eta proiektuaren kronograma bat jaso, egin beharreko ekintzak eta abar ez daudela oraindik zehaztuta.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, PSE-EE (PSOE)1, EAJ/PNV 5)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak hurrengo puntuaren berri eman du presazko eraz aurkeztu delarik:

Alkate in

Esan du nahiz eta BILDU taldeak aurkeztu plenoari mozioa, Nafarroa Bizirk prestatutako idatzia dela.

11.- 1512-2012 Nafarroaren konkista

Gertu dago armada gaztelar eta aragoarrek Nafarroako Erreinua konkistatu zuteneko bostehungarren urtemuga. Espainia zabalkunde garaia bizitzen ari zen lurraldeari zegokiola. 1512ko uztail hartan, haien Armadak Nafarroaren bihotza inbaditu zuten, mende batzuk lehenago bere mendebaldeko lurraldeekin egin zuten bezala. Gertakari horien ondorioz, Herri oso batek galduko zuen bere subiranotasuna.

Nafarroa herri askea zen; herri txikia, baina Pirinioetako bi aldeetan estrategikoki kokatua; Gaztela eta bere hedatze nahia sortu baino askoz lehenago zegoena. IX. mendean, lurralde hauetako bizilagunek bere estatalitatearen hazia ezagutu zuten: Iruñeko Erresumaren egitura politiko-instituzionala, gero Nafarroako Erresuma izango zena.

Espainiar armada, Albako Dukearen agintepean, su eta gar sartu zen eta Luis Correak idatzitako konkistaren gaineko historian Villalva Koronelaren hitzetan jarria da armada inbaditzaileak erabili zuen basakeria: "herriak erre ziren, ehunka nafarrek alde egin zuen, emakumeak bortxatu zituzten, ondasunak konfiskatu zituzten, erbesteratzeak izan ziren, exekuzioak ...". Gazteluak suntsitu ziren, nafarrentzat bakarrik izan zitezkeen karguetan espainolak sartu ziren. Herriek okupazio-armadaren gastuak ordaintzen zituzten "gerra gastuak" bailiran. Okupazio militarrek 100 urte iraun zuen, eta gaur arte luzatu da. Hala ere, mende luze hartan gaztelarren kontrako konspirazioak ere izan ziren, nafarrak ziren, hemengo jendea, nahiz eta erregeordeek "euren lurraldearen aurkako errebolta" deitzen zieten. Konkista eta ondorengo garaia gogorra izan zen, kezka handikoa, eta ez baketsua. Honek kontraesanetan jartzen du "berdinen arteko hitzarmena" izan zela dioen bertsioa, "bat egite zorientzua" asmo txarreko interpretazio historikoa da, azken batean, egungo Nafarroaren egoera legezkotzat eman nahi baitu. Hori da, hain zuzen, gaurko hainbat instituzio ofizialen jarrera, zeinek data hori ospatu nahi duten, gaurko ustezko oparotasunaren zein geroko zorientasunaren iturburu gisa.

Okupazioari erresistentzia etengabekoa izan zen; egitandi gogoangarriak izan zirelarik, Amaiur defendatu zutenena kasu. Honez gain, geroztik eta egun arte herri honen estatusaren hondaketa-prozesuak aitzina segitu du, bere subiranotasuna barne, probintzia bihurtzeraino eta egun, Autonomia Erkidego, ia-ia Nafarroa izena desagerraraziz.

Gaur, Nafarroa Espainiara libreki bildu zela dioen faltsukeriaren aitzinean, 2012an Espainia Nafarroa Garaia konkistatzen hasi zela 500 urte beteko direla gogora ekarri nahi dugu, data hura giltzarri izan zen gure estatalitatea indarrez hondarazteko. Gure mendeetako ibilaldia erakutsi nahi dugu eta kendu ziguten hura berreskuratzeko eskubidea dugula garbi adierazi; burujabetza galdu izana gure herriarentzat galbidea izan da.

Historiak independente izan ginela erakusten digu, eta izateari utzi geniola, ez gure arbasoen nahiaz, baizik eta espainiar eta frantses nahikeria dela eta. Gerrak, kolonizazioak eta bortzak gure identitatearen garapena zapuztu dute. Eta, hain zuzen ere, gure interes nagusia ez baita

iraganean, orainean eta geroan baino, memoria historikoa berreskuratu nahi dugu askatasunerantz pausoa emateko eta gure eskubideak defendatzeko.

1512 hartatik ia bostehun urte joan dira, baina Nafarroa bizirik da eta, gaurkotasun osoz, honako eskaera luzatzen dugu: egungo nazioarteko testuinguruan, duela denbora gehiegi kendu ziguten nafar naziotasuna berreskuratu eta etorkizun askea izan.

Horregatik guztiagatik, deia bikoitza luzatu nahi dugu:

Batetik, dei egiten diegu jendeari, udalei eta gainontzeko talde zein erakundeei 1512-2012 Nafarroa Bizirik ekimenaren ikurra ikusgai izatera.

Bestetik, dei egiten diogu pertsona, talde, elkarte, udal zein instituzio orori Agiri honi zein ekainaren 16ko Euskal Herriko Ibilaldi Nazionalari atxikitzera. Eta, bereziki, 2012ko uztailaren 25ean, Albako Dukearen Armada nafar hiriburuan sartu ziren 500.urteurrena, nafar bandera haga erdian edota dolu-xingolarekin jartzera.

1512-2012 Nafarroa bizirik!

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Gaia aztertu aurretik, mozioaren presazko izaeraren bozketa jarri da.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Erabatekoa.

Presazko izaeraren Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, PSE-EE (PSOE)1, EAJ/PNV 5)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamenaren presazko izaera onartutzat eman du.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jn

Mozioaren alde bere taldeko posizionamendua agertu du.

Dubreuil jn

Esan du historiari buruz azalpen asko jasotzen direla mozio horretan, eta aztertzeko denbora gutxi izan duela, eta berak ez dakienez benetan historia horrela izan zen, aurka bozkatuko duela.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 12 (BILDU 7, , EAJ/PNV 5)

Kontrako botoak:

Abstentzioa: 1(PSE-EE (PSOE))

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak hurrengo puntuaren berri eman du.

12- Eskaerak eta galderak

Ez da izan.



Gai gehiago ez dagoenez, Alkateak Osoko Bilkura amaitutzat eman du, eta batzordearen akta idatzi da, eta nik, idazkariak egiaztatzen dut.